

9-KOSTUEN EGITURA

“No Clue”-ek edukiko dituen gastuak gure bezeroen araberakoa eta kontratatu beharreko zerbitzuen araberakoa izango da. Dena den, hiru motatako kostu ezberdinak bereiz litezke. Alde batetik, finkoak, diru kantitate berberakin ordaintzen direnak egokitzen den epean. Beste alde batetik, aldakorrak, hilabete batetik bestera aldatu daitezken diru kantitateakzhefeddc. Azken hauen adibidea motorrekin ezustekoa gertatuko balitz. Argi utztekoa dena da hasierako inbertsioak ez direla sartzen kostu aldakorretan. Hona hemen planteatutako ekintzen gastu taulak:

FINKOAK	HASIERAKO KOSTUAK	ALDAKORRAK
Motorren aseguruak.	Bulegoko materiala (ordenagailuak eta altzairuak).	Argia (gure bulegorako beharrezkoa dena)
Bestelako aseguruak.	Motorrak	Ura (gure bulegorako beharrezkoa dena)
Aplikazioaren eta webgunearen mantentze kostua.	Motorrean joateko uniforme edo ekipamendua.	Gasak (gure bulegorako beharrezkoa dena)
Bulegoaren alokairua.		Gasolina (motorretarako oinarritzkoa)
Soldatak (aurrerago finkatu kontratuak).		Motorren mantenimendurako kostuak (edozein arazo gertatzekotan edukiko ditugun gastuak)
Maileguaren interesak (mailegua eskatzerakotan).		Packaging-a.
Alokairua (bulegoko alokairua)		Mantenimendu generala. (bulegoko edozein ezustekori aurre egiteko)
		Janaria (jaketxeei erosi beharrezkoa, jasango ditugun eskariaren araberakoa izango dena).
		Marketina (gure martetin kanpainak oso bestelakoak izango baitira, egin nahi duguen jardueren araberakoak, hain zuzen)

Datu hauek ikusita ondoriozta dezakegu, gure gastu trinkoetatik garestienak izango direnak hauek izango direla: garraioa (gasolina), marketina eta alokairua. Horretaz aparte, gure errekurto klabeak, hau da, gure negozioa aurrera eramateko ezinbestekoak diren faktoreak: alokairua, garraioa, aseguruak eta nola ez janariaren eskuratzea izango dira.

Bestalde, gure kostuetan aldaketak sor ditzaketen faktoreak (kostu aldakorrak) asko izan daitezke. Maileguaren edota alokairuraren prezioa igo ala jeitsi ahal delako eta berdina gertatu daitekelako beste faktore batzuekin. Halaber, gure gastuen artean gehien alda daitezkeenak garraioaren faktoreak, mantenimendua eta janariaren erosketak dira.

Gainera, nahiz eta, egiazko kostu bat ez izan, erreserba gisa diru kopuru bat izango dugu, hilabetero gordeko duguna. Enpresan sortu daitezkeen edozein ustekabeei aurre egiteko errekurto bat izateko helburuarekin.

